

41. ALDIZKARIA - 2021eko otsailaren 23a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOA

2021eko aurrekontua. Behin betiko onespena

Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluak, 2020ko abenduaren 18an egindako bilkuran, hasiera batez onetsi zituen 2021eko aurrekontu orokor eta bakarra eta hura betearazteko oinarriak. Iragarkia 2021eko 11. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 18an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasiera batean onetsitako aurrekontua Partzuergoaren egoitzan (Barañaingo etorbidea 22, Iruña) egon da ikusgai. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onesten da Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoaren 2021eko aurrekontua. Hona hemen haren laburpena, kapituluka.

DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua.–Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 12.058.218,51 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 12.058.218,51 euro.

GASTUAK:

1. kapitulua.– Gainerako langileriaren gastuak (Idazkari eta Kontu-hartzaile gastuak): 25.000 euro.

2. kapitulua.–Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 10.794.144,24 euro.

3. kapitulua.–Finantza-gastuak: 651,70 euro.

4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 545.501,58 euro.

6. kapitulua.–Inbertsio errealak: 150.651,43 euro.

7. kapitulua.–Kapital-transferentziak: 542.269,56 euro.

Gastuak, guztira: 12.058.218,51 euro.

Iruñean, 2021eko otsailaren 9an.–Partzuergoko burua, Bernardo Ciriza Pérez.

Iragarkiaren kodea: L2102189